

## ZIURTAGIRIEI BURUZKO AZALPENAK

Foru Ogasunari Berehalako Informazio Horniduraren sistemaz (BIH) eta ziurtagiriez helarazi zaizkion zalantzak argitzeko, honako azalpen hauek argitaratzen dira ziurtagirien inguruan:

1. BIH sistemaren bidez fakturak bidaltzeko, onartu egingo dira Gipuzkoataria egoitza elektronikoko tramiteen atarian zilegi diren ziurtagiri berberak, zigilu elektronikoko ziurtagiriak barne. Zilegi diren ziurtagirien zerrenda atarian eskura jarrita dago (Energiako, Turismoko eta Agenda Digitaleko Ministerioak homologatutakoak dira). Egiaztatuko da ziurtagiri homologatua dela eta errebokatuta eta iraungita ez dagoela.
2. Fakturak bidaltzeko, ez da sinadurarik behar.
3. Honelakoak izan daitezke ziurtagiriak:
  - a. Softwarekoak: ziurtagiri mota hau ordenagailuan instalatzekoa da, eta nabigatzaileek automatikoki antzematen dituzte ziurtagiriekin eragiketak egiten direnean (ez da behar ez irakurgailurik eta ez beste menpekotasunik). Normalean, softwareko ziurtagiriak PINik sartu beharrik ez izateko prestatuta daude.
  - b. Hardwarekoak: ziurtagiri mota hau “ukitu daiteke” (txartela, USBa eta abar), hala nola lizenpek egin ohi dituen txartelak. PINa sartu behar da eragiketa egitean (faktura bidaltzean, kasu honetan). Beraz, bidalketa adina PIN sartu behar dira. Segun eta zein den nabigatzailea eta enpresa garatzaileak nola konfiguratu duen ekipoa, bidalketa sistema prestatzean saioa katxeatu ahal izango da eta PINa behin bakarrik sartu beharko da nabigatzailearen saio bakoitzeko.
4. Software bidezko ziurtagiriak egokiagoak dira BIH bezala arretarik gabeko diren zerbitzuak bidaltzeko, zeren eta fakturen informazioa ematean ordenagailu-ordenagailu motako komunikazioa gertatzen baita, inork esku hartu gabe.
5. Nortasun juridikorik ez duten entitateen kasuan, badira entitatearen ordezkarien eta nortasun juridikorik gabeko entitate ordezkarien txartelak. Txartel berean, ordezkariari (pertsona fisikoa) eta entitateari (pertsona juridikoa) buruzko informazioa jasota dago. Bidalketan, pertsona juridikoari buruzko informazioa jasoko da.
6. Lizenpek softwareko ziurtagiri hauek ditu:
  - a. Entitatearen eta nortasun juridikorik gabeko entitatearen ziurtagiria (pertsona fisikorako ziurtagiri mota):  
[Entitatearen eta nortasun juridikorik gabeko entitatearen ordezkariaren ziurtagiria \(izenpe.eus\)](https://izenpe.eus)

b. Entitatearen eta nortasun juridikorik gabeko entitatearen ziurtagiria (pertsone juridikorako ziurtagiri mota):

[Entitate-zigiluaren ziurtagiria \(izenpe.eus\)](http://izenpe.eus)

7. Konfiantzazko beste zerbitzu emaile batzuek ere softwareko ziurtagiri homologatuak egiten dituzte.